

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

370

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 19koa, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, irailaren 23ko 179/2014 Dekretuaren babesean 2022ko ekitaldian eskatutako laguntzak eman eta ukatzekoa. Dekretu horren bidez, nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzak arautzen dira, «Lehiatu Sustapena Programa».

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko uztailaren 13ko Aginduaren babesean dirulaguntzak jasotzeko hainbat eskabide aurkeztu dira. Agindu horren bidez irailaren 23ko 179/2014 Dekretuaren babesean 2022ko ekitaldian eskatutako nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzak arautzen dira, «Lehiatu Sustapena Programa» Aurkeztutako eskabideen zerrenda ebazpen honetako I. eta II. eranskinetan, daude bai eta eskabideekin batera aurkeztutako agiriak ere. Aipaturiko eranskin horietan, eskabide bakoitzari dagokion espediente-zenbakia azaltzen da.

Irailaren 13ko 179/2014 Dekretuaren hamabigarren artikuluan ezarritakoaz sorturiko Balorazio Batzordeak, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak 2022ko irailaren 13an egindako Ebazpenaren bidez izendatu zenak, ebazpen-proposamena egin du.

Balorazio Batzordeak, bere ebazpen-proposamena egiteko, kontuan hartu ditu Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak 2022ko uztailaren 13ko Aginduaren bidez ezarri zituen balorazioa eta hautaketa egiteko irizpide objektiboak.

Aurreko guztia kontuan hartuta, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honetako I. eranskinetako zerrendan azaltzen diren eskatzaileei dirulaguntza «minimis» ematea Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko uztailaren 13ko Aginduan jasotako nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuentzat. Aipatutako eranskinetan zehaztuta daude dirulaguntza jaso ditzaketan inbertsio edo gastuen zenbatekoak eta zuzeneko laguntza moduan emandako laguntzen zenbatekoak. Dirulaguntza 287.798,47 eurokoa da guztira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura finantzatuko da.

Gastua eta fakturak 2022 urtekoak izan behar dira.

Bai gastua gauzatu dela justifikatzeko agiriak aurkezteko epea, bai faktura horien ordainketa epea, 2023ko otsailaren 28a da.

Dirulaguntza enpresak eginiko promozio-ekintzak eta irailaren 23ko 179/2014 Dekretuak ezarritakoaren arabera ordainduko da.

Promozio gastua ezarritako epearen barruan gauzatzen ez bada, edo epe horretan gastu-promozioa egin dela egiaztatzen duten agiriak aurkezten ez badira, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da eta, hala badagokio, irailaren 23ko 179/2014 Dekretuaren hogeita hirugarren artikuluan aurreikusitako itzultze-prozedurari ekingo zaio.

Bigarrena.– Ebazpen honetako II. eranskineko zerrendan azaltzen diren eskatzaileei dirulaguntzarik ez ematea Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko ekainaren 13ko Aginduan jasotako nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuentzat.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, ez baitu administrazio-bidea amaitzen, interesdunak gorako errekurtsua aurkeztu ahal izango dio Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 121 eta 122 artikuluetan zehaztutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 19a.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,
RAÚL PÉREZ IRACHETA.

2023ko urtarrilaren 23a, astelehena

I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTU OROKORREN KONTURA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

	Espediente-zk.	Baltzuaren izena	IFK/NAN	Laguntza jaso dezakeen (euro)	2022 (euro)
1	00001-LHP2022-24	Bodegas Izadi, SA	A01036870	17.932,00	8.966,00
2	00002-LHP2022-24	Arrankoba 08, SL	B48119648	2.400,00	720,00
3	00003-LHP2022-24	Bodegas Ostatu SL	B01127133	22.548,62	11.274,31
4	00004-LHP2022-24	Bodegas Valdemar, SA	A01015494	32.248,29	16.124,14
5	00005-LHP2022-24	Zuazo Gastón Bodegas y Viñedos Sociedad Limitada	B01563683	60.000,00	30.000,00
6	00006-LHP2022-24	Sierra de Toloño, SLU	B01508175	7.355,33	3.677,67
7	00007-LHP2022-24	Ondalan SA	A01030790	8.751,70	4.375,85
8	00008-LHP2022-24	Helados Italianos Gelati Gelati SL	B95298907	4.732,67	1.419,80
9	00009-LHP2022-24	Urkabe Benetan, S A	A20137592	2.000,00	600,00
10	00010-LHP2022-24	Salanort SL	B20531604	17.427,79	5.228,34
11	00011-LHP2022-24	Ederpesca y Derivados, SL	B75136242	14.003,48	4.201,05
12	00012-LHP2022-24	Gascón Vermuyten SL	B01179548	23.353,01	7.005,90
13	00013-LHP2022-24	Petritegi Sagardoak 2011, SL	B75043877	320,99	160,50
14	00014-LHP2022-24	Wild Ferment, SL	B75212415	13.952,02	6.976,02
15	00015-LHP2022-24	Etxaniz Txakolina, SL	B20365482	6.691,67	3.345,84
16	00016-LHP2022-24	Rezabal Osinaga, SL	B67790741	2.500,00	1.250,00
17	00017-LHP2022-24	Bodegas Landaluze, SL	B01251461	4.950,00	2.475,00
18	00018-LHP2022-24	Bodegas Medrano Irazu, SL	B01420462	14.322,32	7.161,16
19	00019-LHP2022-24	Talai-Berri, SL	B20948790	4.999,91	2.499,95
20	00021-LHP2022-24	Bodegas Muro, SC	J01250737	6.072,54	3.036,27
21	00022-LHP2022-24	Bodegas García de Olano SL	B01584721	7.770,00	3.885,00
22	00023-LHP2022-24	Bodegas Vallobera, SL	B01141670	20.000,00	10.000,00
23	00024-LHP2022-24	Sdad. Coop Vinícola Lapuebla de Labarca	F01049105	44.060,82	22.030,42
24	00025-LHP2022-24	Bodegas Casa Primicia SA	A01032564	9.414,00	4.707,00
25	00026-LHP2022-24	Txakoli Gaintza, SL	B20679676	16.266,70	8.133,35
26	00027-LHP2022-24	Bodegas Gómez de Segura Ibañez, SL	B01307834	4.462,71	2.231,36
27	00028-LHP2022-24	Bodegas Bhilar, SL	B01511385	1.550,00	775,00
28	00030-LHP2022-24	Aleak Lehtzen, SL	B75054957	1.782,65	891,33
29	00031-LHP2022-24	Destilerías Manuel Acha Fca. de Licores, SA	A01000603	31.150,00	9.345,00

2023ko urtarrilaren 23a, astelehena

	Espediente-zk.	Baltzuaren izena	IFK/NAN	Laguntza jaso dezakeen (euro)	2022 (euro)
30	00032-LHP2022-24	Hika Txakolindegia, SL	B75094490	12.307,94	6.153,98
31	00033-LHP2022-24	Compañía de Vinos Telmo Rodriguez, SL	B01172261	36.580,00	18.290,00
32	00035-LHP2022-24	Juan José Mendieta Zabala	***7287**	20.761,64	10.380,82
33	00036-LHP2022-24	Bodegas L. Casado, SL	B01301621	4.835,85	2.417,93
34	00037-LHP2022-24	Bodegas Javier San Pedro Ortega, SLU	B01527738	5.477,99	2.739,00
35	00039-LHP2022-24	Artadi Alimentación, SL	B20682522	23.300,83	6.990,25
36	00040-LHP2022-24	Viñedos y Bodegas Casado Morales, SL	B01525500	5.902,43	2.951,22
37	00041-LHP2022-24	Maisulan, SL	B01315670	6.694,00	3.347,00
38	00042-LHP2022-24	Bodegas Fernández de Pierola SL	B01241405	14.968,46	7.484,24
39	00043-LHP2022-24	Sidras Bereziartua, SL	B20743803	6.966,00	3.483,00
40	00044-LHP2022-24	Bodegas y Viñedos Pujanza, SL	B01300730	17.913,34	8.956,67
41	00045-LHP2022-24	Eguren Ugarte SA	A01038983	37.415,07	18.707,54
42	00046-LHP2022-24	Señorio de Arana, SA	A48128813	5.117,11	2.558,56
43	00047-LHP2022-24	Amesguren, SL	B20821831	14.884,00	7.442,00
44	00051-LHP2022-24	Guillermo Castaños Giráldez y Otro, CB	E75184473	6.800,00	3.400,00

2023ko urtarrilaren 23a, astelehena

II. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

	Espediente-zk.	Baltzuaren izena	IFK/NAN	Ukoaren arrazoia
1	00038-LHP2022-24	Conservas Cusumano, S.A.	A48126569	Irailaren 23ko 179/2014 Dekretuaren 1. artikulua ez du betetzen